


Heri Aldizkaria
Otamotz

1998ko iraila
40. alea



Santa Anastasia jaiak 98

QUEVALTEAHOEN
**ZINTZU
MINTZU**
ELIZABETEAN



MERKA-UROLA ALTZARIAK

LOGELATAN
MAISUAK



Larunbat arratsaldetan zabalik!!



Egongela
eta sofa
aukera
zabala

Mugi tegi, 17

Tel. / faxa: 943725828

Urretxu



1974ko Urretxuko jaietan txarangarik ez zegoela eta zerbait egitea beharrezkoa zela ikusten zuten, horretarako tuberietako tutuak erabiliz airezko tresnak egin zituzten eta modu honetan argazkian ikus daitekeen txaranga osatu zuten. Ezkerraldean: Luis Tirapu, Jose Javier Larrañaga (Jostenka). Erdian: Iñaki Kerejeta. Eskubian: Iñaki Alberdi, Jesus Mari Oruesagasti, Kiko eta Takiru Gurrutxaga.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu.
Tel: 943725775 **koordinatzailea:** Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarría, Jon Balenziaga, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldúa. **Publizitatea:** Asier Zaldúa **Diseinua:** Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Azaleko argazkia:** LIZA Inprimategia: GOI DESIGN - Zumarraga **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202> **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Iparagirre, 11 URRETXU tel: 722599

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

BAIMENDUTAKO



Pepe Jeans
LONDON



SALTOKIA DOSS

Bidezar, 13 ZUMARRAGA



MADARIAGA

Gestoria-Inmobiliaria-aseguruak

Labeaga, 27 ☎ eta faxa: 72 55 29
URRETXU



ERAIKUNTZEKO
MATERIALAK

ALMACENES

SANTA BARBARA

Eraikuntzarako era guztietako materialak.
Gres eta azulejotan markarik onenak.

Mugitegi Pol. B, 2 ☎ eta faxa 72 55 16
URRETXU



Legazpi, 5

☎ 72 62 74

KABIA
JATETXEA

ZUMARRAGA



URRETXUKO JAIK 98

Irailak 18, ostirala

18.30.-Mundo Mejor, San Martin eta Pagoetatik **Urretxuko erraldoi eta buruhandiak** ("Aldiri kultur elkarte konpartsa") aterako dira.

19.30.-Sama-Siku fanfarrearen kalejira.

20.00.-Alkatearen pregoia entzun ondoren **kainoiaren danbada** izango da eta herriko kanpai guztiek batera joko dute.

20.30.-Haurren jaialdi ikusgarria, Iparragirre plazan.

23.00.-Abesbatz txikien jaialdia Iparragirre plazan.

00.30.-Zubimusu plazan **Sama-Siku fanfarrearen** eskutik musika eta umorez betetako ikuskizuna.

Ordu berean, **txosnetan rock taldeen kontzertua**.

Irailak 19, larunbata

09.00.-Avenida berrian, **abelgorrien lehiaketari** emango zaio hasiera; "Secundino Esnaola" musika ikastetxe-ko trikitilariak izango dira bertan giroa alaitzen.

10.30.-Haurrentzako eskalada Gernikako Arbola enparantzan.

11.00.-Urretxuko erraldoi eta buruhandiak (Aldiri kultur elkarte konpartsa)

12.30.-Ganadu lehiaketaren sari banakera. Jarraian, ber-tsolarien saioa.

14.00.-Lizeoko enparantzan, **haurrentzako bazkaria**, **Artizar astialdi** taldeak antolatuta.

15.00.-Haurrentzako jokuak, Artizar taldeak antolatuta.

15.30.-Santa Barbarako bidean, Odriozolaren plazatxoan, **plater tiraldia** arratsaldeko 8ak bitartean.

16.00.-Haurrentzako karaoke eta txiste lehiaketa, Artizar taldeak antolatuta.

Ordu berean, Ederrena pilotalekuan, **XXIII**.

Gastronomi Lehiaketa hasiko da. Jangaia: Congrioa saltsan.

19.00.-Lizeoko enparantzan, **Herriarteko XI. Folklore Jaialdia**.

21.00.-Gastronomi Lehiaketako bi sukaldari irabazleak ezagutu ondoren, sukaldari eta laguntzaileak hor saiatuko dira prestatutakoa triparatzen.

23.00.-Iparragirre plazan, txistulariek antolatutako Txistularien Kontzertu Nagusia **Celestino Pozuetaren** omenezkoa (1897-1968).

Kaleetan zehar, hor arituko da goizeko 3ak eta erdi arte Aldapa txaranga.

00.30.-Zubimusu plazan, **Txatanuga Funtz Band** taldearen saio berezia.

05.30.-Txokolatada beroa txosnetan.

07.10etan.-Zezenak, Urolako geltoki zaharraren ondo-ko plazatxoan.

Irailak 20, Igandea **Euskal Jaia**

10.00.-Egunari hasiera emango diogu txistulari, trikitilari eta dultzainero taldeen kalejirarekin.

11.00-12.00.-"Argazkilari Kontzentrazioa". Gaiak

egun osoan zehar aukeratu ahal izango dira Kultur Etxean.

Goiz osoan zehar, **hainbat euskal ekintza** izango da Iparragirre plazan, arratsaldeko 2ak arte:

-sagardo eta txistor dastaketa

-Urretxu eta inguruko herrietako artisauek

Gainera. **Euskal Jantzien Erakusketa**.

11.30.-Herriko trikitilariak, dultzaineroek, bertsolariak, abeslariak, txalapartariak, dantzariak eta erraldoiak herria girotuko dute.

17.30.-Karrozen ibilaldiaren irteera. Aurten 11 koadrila arituko dira lanean. Hauekin batera hainbat taldek Euskal Jaiko ibilaldia osatuko dute.

18.30.-Lizeoko plazan, **Urretxuko Txalapartarien eta Zuhaitzaren Soinua** elkartearen saioa.

19.15.-Ibilaldiko lehenengo karrozak Lizeoko plazan sartzen hasiko dira. Denak heldu ondoren, **epaimahaiaren erabakia** jakinaraziko da.

23.00.-Zintzo-Mintzo euskaltzaleen elkartearen gazte taldeak antolatuta, **Euskararen Aldeko Kandela Piztea**, Iparragirre plazan. Anima zaitetz eta eraman zure kandelatxoa.

23.30.-Iparragirre plazan, dantzaldia **Etzakit** taldearen eskutik.

00.30.-"Bedaioko Ingurutxo", dantza herrikoa Iparragirre plazan.

01.00.-Iparragirre plazan, klabinaren eskeintzaren jarraipena.

Irailak 22, astelehena **Koadrilen Eguna**

10.00 .-Avenida, herri bazkarian parte hartuko duten koadrilei **mahai eta aulkiak banatzea** montatu ditzaten.

11.30.-Mahaia montatu dutenentzat, Avenida bertan Hamaiketako: **salda eta txorizoa**.

12.00.-Haurrentzako Jolasak Iparragirre plazan, eguadiako 2ak arte eta arratsaldeko 4etatik 6ak arte: gaztelu puzgarria, pista amerikarra, trena, etab. Ondoren, koadrilen musika alaiaz lagundurik, Herri Kalejira.

14.30.-Herri Bazkaria Avidan.

17.30.-Koadrilentzako zezenak, Urolako zezen-plazatxoan, Aldapa txarangaren musikaz alaiturik.


18.30.-Magiaz eta umorez beteriko **haurrentzako jaialdia**. "Hankagorri" taldearen eskutik, Iparragirre plazan.

20.00.-Txiste Lehiaketa Avidan. Animatu eta konta zeure txisterik onena.

21.30.-Kantu-Afaria Avidan. Otarteko on bat jenez, euskal kantak abesteko aukera izango dugu, zenbait txistulari, soinu-jole eta musikariren laguntzaz, giro jatorrean, **Zintzo-Mintzo euskaltzaleen elkarteak** antolatuta.

23.00.-Iparragirre plazan, dantzaldia **Gaubela** taldearen eskutik.

Gogorra egiten al zaizu eskola edo lanerako itzulera?



Adriano Blazquez

Nik ez dut oporrik hartu eta aurten ez dut hartzeko asmorik. Hala ere lanean gustura nabil.



Idoia eta Agurtzane

Ni ez naiz lanean hasi, langabezian bainago (Agurtzane)
Ni abuztuan lanean aritu naiz, udan bakarrik egiten baitut lan. Gainerantzean ikasten aritzen naiz (Idoia).




Edorta Salvador

Dudarik gabe gogorra egiten da, hala ere nik oraintxe hartu ditut oporrak. Dena den, laster lanean hasi beharko dudala pentsatzea bakarrik gogorra da.




Fani eta Lierni

Ez zaigu oso gogorra egin, 12 egun bakarrik izan bakarra oporretan. Lanerako gogoarekin bueltatu gara.



Saioa Murua

Bai, gogorra da hastera. Hemezortzian hasiko gara ikastolan eta lehenengo egunak bereziki gogorrak egiten dira.



Ander Lasa

Batzuetan soilik egiten da gogorra. Aurten ez daukat hasteko batere gogorik. DBHko 3. maila hasi behar dut eta oso gogorra ez izatea espero dut.

BIONA


AROTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

 **kutxa** fundazioa
fundación

EDURNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA



Lanbasa

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



Keros

Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Iraultza taldea: Oraingo karrozen gaiak internazionalistagoak dira

Urretxuko jaietan egunen batek izaera berezia badu, hau Euskal Jaiaren eguna da. 1959an izan zuen bere sorrera, euskal kulturak jasaten ari zuen zapalkuntzari erantzun eta ukatzen ziztaigun nortasuna aldarrikatzeko. Aldarrikapen honen adierazle nagusia karrozak ziren eta berehala Euskal Jaiaren ezaugarri nagusia ere bihurtu ziren. Sekulako sona lortu zuten Euskal Herria guztian eta txoko guztietako euskaldunak hurbiltzen ziren Urretxura egun berezi hartaz gozatzerara.

Urte hauetan guztietan karrozek gorabehera ezberdinak ezagutu dituzte: debekuak arrazoi politikoak zirela medio, euskal gaiak umorezkoengatik aldatu beharra... Hala ere, arazoak gainditu eta 39 urte ondoren Urretxuko jaietan adierazle nagusia izaten jarraitzen dute.

Iraultza koadrilak hamalau urtetan jarraian karrozak prestatu zituen eta badute, beraz, gai honen inguruan zeresanik.

-Noiz hasi zineten karrozak egiten?

Oso gazteak ginela hasi ginen, 1979an hain zuzen ere. Garai hartan karrozen kontua ez zegoen orain bezain indartsu eta gu ere parte hartzera animatu ginen. Urte hartan bost karroza besterik ez ziren atera: Kalainka, Txintzarri, Bide Berrian eta Irrintzi koadrilatakoak; geureaz gain, noski. Guztira hamalau urtetan jarraian



Iraultza taldeak eginiko lehen karroza, 1979

atera ginen, baina urtero ez genuen karroza egin. Bi urtetan desfilea antolatu genuen.

-Zein gai jorratzen zenituzten zuen karrozetan?

Lehenengo urtean atera genuenak "Karrozen Omenaldia" zuen izena eta bertan ordurarte gogokoen genituen karrozen elementuak bildu genituen. Hala ere, garai hartako karrozak, orokorrean, oso erreibindikatzaileak ziren eta geureak ere halakoak izan ziren ondorengo urteetan. Azken finean karrozak beti izan dira euskal gizarteak bizi duen egoeraren islapena. Garai hartan, trantsizioan, gaiak

jorratzeko askatasun zertxobait handiagoa zenez, erreibindikazio oso garbia egiten zen. 1977an gertatutakoa ahaztezina zaigu: ibilaldia bukatu eta Bide Berrian koadrilaren karrozan aurpegia estalita zihoan Nikolas Azurmendi bere lekutik jeitsi, Askatasuna karrozako kaiola hautsi eta eta askatasunaren seinale bezala Euskal Herriko mapa altxatu zuen. Orduetik hona karrozen gaietan aldaketak eman direla uste dugu, egungo gazteek aurkezten dituzten karroza asko internazionalistak dira.

-Nola egiten zenituzten karrozak?

Hasteko, afari bat egiten genuen. Hara

IKER

SUKALDE ERAKUSKETA

FAGOR

Udala Enparantza, z/g
Tel.: 943 / 79 00 43
20500 ARRASATE

Ipeñarrieta, 5
Tel.: 943 / 72 50 75
20700 URRETXU

943 72 42 55
Legazpi, 14
ZUMARRAGA

ecu

943 43 19 72
Getaria, 18
DONOSTIA

bakoitzak pentsatutako ideia eta proiektua eramaten zuen. Bakoitzak berea aurkeztu ondoren, denon artean egokiena uste genuena aukeratzen genuen. Ondoren lanean hasitea besterik ez zegoen. Orain bezala, koadrilan arotz edo igeltseroak izatea abantaila handia zen. Azken urteotan eman den aldaketa nagusia material berrien agerpena izan da, bestelakoan, gauzak antzera egiten dira.

-Ba al duzue bereziki gogoratzen duzuen karrozaren bat?

Egia esan, zaila da norberak eginiko karroza bat hautatzea, denek ere lan handia ematen baitute. Bat aukeratzekotan "Amaieur" izeneko hautatuko genuke. Izan ere, lan handia eman zigun karroza izan zen: gaia asko ikertu genuen eta karroza bera egitea ere oso neketsua izan zen. Hala ere, merezi izan zuen: lehendabizikoz saria irabazi genuen. Karroza honetan Amaiurreko gazteluan gertatutako borroka historikoa aurkeztu genuen. Hemen nafarrek euren azken gotorlekua eta beraz, independentzia galdu zuen Gaztelaren aurrean.

-Zein ekintza burutzen zenituzten karrozegain?

Beste koadrila batzurekin batera jaietako komisiotan egoten ginen eta ostiraletik hasi eta astelehena arte jaiak antolatu eta beraietan parte hartzeaz arduratzen ginen. Ondo pasatzen genuen, baina lana ere handia zen eta astelehen arratsaldea iristea asko eskeritzen genuen. Koadrilen arteko jokoen ondoren antolatzaile lanez ahaztu eta askatasun osoz ibili gintezkeen.

-Orduko jaiak oraingoen ezberdinak al ziren?

Ez, uste dugu jaiak ez direla ia aldatu gu karrozak egiten hasi ginenetik hona. Beti bezala ostiraletik astelehenera ospatzen dira eta egun bakoitzak orduan zuen izaera ber-

bera mantentzen du. Beti ere oso jai partizipatiboak izan dira eta hor dago beraien arrakastaren arrazoia. Behera egin duen gauza bakarra koadrilen eguneko jokoak izan dira. Lehen arrakasta handia zuten eta koadrila guztiak bertan parte hartzeko desiatzen geunden. Orain, berriz, nahiz eta bazkarira askoz ere jende gehiago joaten den, koadrilen arteko jokoak desagertu dira.

-Ez al duzue pentsatu berriro ere karroza egitea?

Egia esan, utzi genuenean ez zen behinbetiko izan. Berriro ere noizbait karroza ateratzeko esperantzan utzi genuen. Oraindik ere, koadrilako batek urtero galdetzen du ea atera behar dugun. Ez genuke gure asmoarengatik koadrila gazteago bat aukerarik gabe utzi nahi, baina aukerarik badugu urteren batean berriro lanean jartzea espero dugu.

-Hainbeste urtetan karrozak egiten ibili ondoren, gertakizun bereziren bat gogoratuko duzue...


Egia esan, urtero gertatzen zen gogoratzeko moduko zerbait, istripuren bat edo gertaera xebrerren bat zela. Duela urte batzuk koadrila bati kola lapurtzen ari zitzaizkion, baina ez zuten lortzen lapurra harrapatzea. Hau dela eta, zeharo nazkaturik, potean txixa egin eta kolarekin nahastu zuten. Hurrengo egunerako kolarik gabe zeuden berriro ere. Azkenean karroza bat usai berezi xamarra zuela atera zen igandean.

-Zer azpimarratuko zenukete urte guzti hauetan?

Batez ere koadrilen artean egoten den giro paregabea. Euskal Jaia eta karrozak oso gauza garrantzitsua dira eta gazteak animatu nahi ditugu karrozak egitera. Lan gogorra da, baina lagunartean denez gustura egiten da eta lagun berriak egiteko ere balio du.



Koadrila guztietako lagunak, Iraultzak bere lehen saria jaso zuenean



RENEDO argazkiak

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F 20700

☎ 725682

URRET XU

722292



MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA

☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00



BAPRI
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuk, dordokak

Urdaneta, 3

☎ 72 61 13

ZUMARRAGA

GORETTI

JANTZIDENDA

**MODAKO
ARROPAK**

Secundino Esnaola, 34

☎ 943 724996

PLAZAOLA

ITURGINTZA

Bide-Zar, 5 ☎ 943 72 13 70 ZUMARRAGA

Antioko XV. Musikaldia

Irailero bezala, hasia dugu aurten ere Antiguako musikaldia. 15. edizioa dugu iada eta Foru Aldundiaren ekimenez musika klasikoaren eskeintza deszentralizatzeko asmoz hasi zena, zeharo finkatua dago. Foru Aldundiaren asmoa ere bazen, lurraldeko zenbait leku interesgarri eza-gutzerara ematea. Honela Antioko basilizaz gain, Deba, Zarautz, Oñati eta Azkoitiako elizetan ere ekitaldiak antolatzen dira. Oro har, arkitektura aldetik bereziak eta akustika ona zuten lekuak aukeratu ziren. Musikaldia urtetik urtera garrantzia hartzen ari da eta jende gehiago hurbiltzen da bertara. Antolatzaileak Foru Aldundia, Donostiako Hamabostaldia eta Zumarragako Udala dira, aurtengo aurrekontua hiru milioi pezetatakoa delarik.

Urte hauetan guztietan oso jende ezaguna hurbildu da Antiora: Joaquín Atxukarro pianojolea, Ainhoa Arteta, Donostiako Orfeoia, Moskuko birtutetsuak eta Berlingo korda boskotea... Urtetik urtera garrantzitsuagoa den musikaldia dugu eta Donostiako Hamabostaldiaren jarraipen txikia dela esan daiteke.

Izan ere Donostiakoa jende asko oporretan kanpoan dagoen egunetan ospatzen da. Antioko musikaldiak iraileko larunbat guztietan eskeintza bikaina du eta doan gainera.

Aurtengo musikaldiari hasiera Nicanor Zabaleta kamera orkestrak eman zion eta joan den astean Il Giordano Armonico italiarrak aritu ziren. Bere ekitaldiak arrakastatsuak izan ziren entzule aldetik zein musika aldetik. Nicanor Zabaleta Ganbara Orkestra euskadiko musikari gazteez osatua dago. Europako musika ikastetxe

ospetsuenetan arituak dira eta aurtengo Donostiako Hamabostaldian ere egon dira. Euren errepertorioan erromantizismoko korda orkestrarako lanak dituzte batez ere, baita mende honetakoak zein euskal musikagileenak ere. 1997. urteaz geroztik Christoph Gedschold zuzendari alemaniar gaztea dute lankide. Hilaren 12an aritu zen Il Giordano Armoniko taldea Milanen sortu zen 1985ean. Areto musikan espezializatuak dira, aintzinako tresnak jotzen dituzte eta batez ere VII eta VIII errepertorio italiarra lantzen dute. Musika munduan izen handia duten Europako hiri ezberdinetan eskeini dituzte kontzertuak eta egun Vivaldiren zenbait lan obra ari dira grabatzen.

Asteburu honetan María José Moreno soprano granadarra izango da Antion. Besteak beste Rodrigo, Guridi, Verdi eta Pucciniren lanak abestuko ditu. Oso momentu onean dago eta honen adierazle

nagusia datorren urtean Donostiako Hamabostaldian arituko dela da.

Santa Zeziliako koralak itxiko du aurtengo musikaldia hilaren 26an. 1928an sortu zen funtzio erlijiosoak zabaltzeko asmoz, baina, laster bere abesti bilduma folklore arlori zabaldu zuen, Euskal Herriko jaialdietan parte hartuz. Nazioarteko ekitaldi ugari eskaini ditu eta baita zenbait lehiaketa irabazi ere. Iaz, hain zuzen ere, Antioko abesbatza lehiaketan garaile suertatu zen. Hau dela eta, beste sari batzuen artean, aurtengo musikaldian parte hartzeko aukera eskaini zaio.

Beraien ekitaldian euskarazko zenbait kanta ere eskainiko dizkigute.

Zaletasuna duen edonork ez du aitzakiarik, sarrera doan da eta kontzertuak arratsaldeko zazpiak eta erdietan hasten dira. Ordu erdi lehenago autobusa ateratzen da Zumarragako parrokiatik.



Nicanor Zabaleta Ganbara Orkestra Antion entzun abal izan dugu

Lander Zurdo Antioko Hamabostaldiaren antolatzailea

Lander Zurdo Zumarragako Musika Bandaren zuzendaria eta Antioko Musikaldiaren udal arduraduna da. Urte hauetan guztietan zehar, antolakuntza lanean murgilduta egon da eta bertatik pasa diren musikari ezberdinekin harremanak izan ditu. Musikaldiaren gorabeherak primeran ezagutzen ditu beraz.

Ze azpimarratuko zenuke aurtengo Musikaldian?

Nik uste musikari oso onak datozela aurtengo Antiora. Nicanor Zabaleta Ganbara Orkestrako gazteak, adibidez, Donostiako Hamabostaldian izan ditugu aurten. Il Giordano Armonikoko italiarrak inguru honetan ekitaldiak eskaintzen ari dira eta Lizarra zein Gasteizen ere izango dira. María José Moreno sopranoa Ainhoa

Arteta Antion egon zenean bezain momentu onean dagoela esango nuke. Hau da, orain ari da lortzen benetako nazioarteko maila eta heldutasun profesionala.

Zer nolako garapena izan du Musikaldiak?

Nik uste entzule aldetik oso sendotua dagoela, eta Euskal Herriko txoko ezberdinetatik ere jendea hurbiltzen da. Gainera bertako jendea gero eta heziagoa dagoela



Zander Zurco, Zumarragako Musika Mandaren zuzendaria

esango nuke. Lehenengo urteetan jendea sartu irtean aritzen zen musikariak lanean ari ziren bitartean. Isiltasun egokia ez bada-gu musika ez da behar adina nabarmendu-ko.

Ba al dago urte hauetan guztietan oroitzen berezirik utzi dizun musikaririk?

Nik uste dut maila honetan denek dutela zerbait berezia eta guztiez gogoratzen dut detaile bereziren bat. Joaquin Atxukarro oso gizon adeitsua zen. Askotan pentsatzen dugu musikari hauek beren buruak besteona baino hobetzat dituztela, baina gero jende oso jatorra dela konturatzen gara.

Zer iruditu ohi zaie Antioko baseliza?

Musikari gehienek, Europa ekialde edo erdialdetik datozenak batez ere, baseliza batean jo behar dutela jakin eta askoz ere leku txikiagoa espero dute.

Hona iritsi eta Antio ikusten dutenean oso leku ederra iruditzen zaie. Akustika ere oso ona iruditzen zaie. Hau nire ustez egur eta harriaren arteko konbinaketari esker da, txoko guztietatik primeran entzuten da musika. Urte hauetan guztietan egin diren aldaketak, musikal ikuspegitik, onerako izan dira.

Ba al dago Musikaldira etortzea lortzea bereziki kostatu zaizuen musikariren bat?

Beno, zenbait musikaldik lan errezagoa dute, Donostiako Hamabostaldiarekin batera ospatzen baitira. Hori dela eta, Donostiara etortzen direnak ez dute batera arazorik hurrengo egunean inguruko herri batera hurbiltzeko: Zumaiara, Debara...

Zumarragara datorren jendea, ordea, bertara dator. Hori dela eta, zailtasun gehiago ditugu zenbaitetan musikariak ekartzeko.

Nor gustatuko litzaizuke ekartzea?

Eskatzen hasiz gero, Israelgo Orkestra Zubin Mehta buru dutela ekartzea atsegingo litzaizuke. Noski, guk dugun aurrekontuak ez du halakoetarako ematen, baina, ahal dugun onena ekartzen saiatuko gara aurrerantzean ere.

Ez al dizue inork arazorik sortu kapritxoren batekin?

Ez, arazo oso larririk ez, ondo moldatzen dira dagoenera. Batzuek, adibidez, ezaugarri bereziak dituen aulki bat nahi izaten dute eta guk lortu beharra izaten dugu.

Besteren batek jotzen hasi baino lehen "yakuzzi" bat atsegin zuela esan zigun, eta noski, Antio "baselizen katedrala" izango da, baina, halakorik ez dugu oraindik.

Irakurleei mezuren bat bidali nahi zenieke?

Bai, beldurrik gabe hurbildu daitezela Musikaldira. Jende askok dio musika moeta hau ez duela ulertzen. Nik musika sentitzeko dela esaten diet, ez da ulertze kontua. Garrantzikoena arreta jartzea da, hau eginenez gero musika geure barnean sartu eta berarekin gozatuko dugu. Noski, zenbat eta gehiago jakin, orduan eta gehiago estimatuko dugu. Baina gozatzeko arreta jartzea besterik ez da behar, ondoren norberaren izakeraren arabera sentipenak sortaraziko dizkigu.

MASTER HEZKOR
CADENA

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31

ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

OINETAKOAK

OSAGARRIAK



Donu Maximina

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 943 72 44 82



alejandra albisua

kirol gaiak

Soraluze 6

☎ 72 52 22

ZUMARRAGA



GUREA

Iturgintza



Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67

20700 URRETXU

IRRIKA elkarteak 25 urte bete ditu

Ehiztari eta pelotazaleez osaturiko elkarte da

25 urte pasa dira jada Eitza inguruko gazte batzuk elkartu eta Irrika elkarte sortzea erabaki zutenetik. Hori dela eta zenbait ekintza antolatu dituzte. Irailaren 5ean meza eta ondoren bazkaria izan zituzten urtemuga ospatzeko. Ondoren toka txapelketa jokatu zuten. Bazkideak oporretatik itzuli berriak zirenez arazoak izan dituzte ekintzak aurrera eramateko. Hala ere, aurrerago txangoren bat eta gazteontzako eskupilota txapelketa antolatzeko asmoa ere badute.

-Nolatan sortu zen Irrika elkarte?

Eitza inguru honetan bi koadrila elkarrekin ibiltzen ginen. Garai hartan elkarre ugari sortzen ari ziren, Zumardi ere sortu berria zen, eta guk ere geurea izatea pentsatu genuen. Denok Eitza ingurukoak ginen eta gehienoi ehiza zaletasunak ere lotzen gintuen. Esan beharra dago gainera, garai hartan Eitzan ez zegoela elkarterik. Bordatxo tabernaren ondoan Pinu Azpi elkarte egon zen, baina geurea sortu aurretik desagertu zen. Hutsune hau bete eta elkartzeko leku bat izateko asmoz, hogeita zazpi lagun bildu eta Irrika sortu genuen. Ez genuen aparteko beste helburirik.

-Lokala lortzeko zailtasunik izan al zenuten?

Hasieran alokatu egin genuen eta gastuak gutxitzeko gu geu arduratu ginen lokala txukundu eta prestatzeaz. Lan dexente izan genuen, etxebizitza zahar bat baitzen. Dena den, gero aldaketak izan ditu. Iaz berrikuntzak egin genituen eta lokala zertxobait zabaldu genuen.

-Emakumeak onartzen al zenituzten sukaldean?

Hasieran emakumeak ezin ziren sukaldean sartu, elkarte estatutuaren ere jasoa zegoen. Beste garai batzuk ziren eta geuk ere Donostiako ohitura jarraitu genuen. Gero tirabirak egon ziren, batzuk ez zeuden emakumeak sukaldean sartzearen alde, baina azkenean utzi genien.

-Haseran 27 bazkide zinetela esan duzue, egun zenbait zarete?



Irrika elkarteak Errioxara bigote eta guzti egin zuten irteeran

Orain 44 gara. Duela gutxi asanblada batean beste 8 bazkide sartzea onartu genuen. Izan ere, baja batzuk ere izan ditugu. Sartzen diren gehienak 35 urtetik gorakoak dira, ez da jende gaztea.


—Zein ekintza burutu dituzue urte hauetan guztietan?

Ekintza gehienak elkarte barrurako egintzoak izan dira: afariak edo ospakizunak direla, txangoak Errioxara eta beste zenbait lekutara... Hala ere, zenbait urtetan Eitzako jaien antolatzaileak izan ginen, komisiok ardura hau hartu zuen arte. Bestalde, lehenago auzoko jaietan elkarte taberna moduan zabalik egoten zen eta

barran txandakatzen ibili behar izaten genuen gau osoa zabalik eduki ahal izateko. Egun, jaietan jubilatuei eskeintzen zaien luntxa prestatzeaz arduratzen gara.


-Parranda handirik ere egingo zenuen elkartearen aitzakiaz...

Benoa... ez gara oso parrandazaleak. Bitxikeriaren bat edo beste ordea, egin dugu. Errioxara joan ginen lehenengo aldian, 1973an, joan ahal izateko baldintza bigotea uztea zen. Azkenean denok ez genuen utzi, baina gehienok hor joan ginen, egun gutxi batzuetan hazitako bigote xelebreaz.



1973. urtean Irrika elkarte partaideak elkarte sortzearen garaia

Gotzon Aranburu: "Eginek utzitako hutsunea bete egingo dugu"



Gotzon Aranburu Egineko kazetaria

Gotzon Aranburu herritarra duela 8 urte hasi zen Egin egunkarian erredaktore lanetan. Uztailearen 17ko itxiera gertutik bizitzea tokatu zitzaion beraz. Orain Euskadi Información egiten duen taldean ari da lanean etorkizunak zer ekarriko dion zain.

Nola bizi zenuten Eginen itxiera?

Sorpresa handiz. Ni neu oporretan nengoen, baina beti irratia entzuten aritzen naiz eta horrela izan nituen lehenengo berriak. Egunkarira hurbildu nintzen eta han, kanpoaldean, aurkitu nituen nire lan-kideak. Polizia mordoa ere han zebilen. Bi taldeok elkarri begira egon ginen: beraiek pozik eta gu amorrutaz beterik.

Zein da egungo egoera?

Lehenengo momentutik izan dugu erre-akzionatzeko ahalmena, eta horrek adore handia eman digu.

Egin itxi zuten egunean bertan hasi ginen toki baten bila, egunkari antzeko zerbait idazteko. Eta lortu genuen, benetako lagunei esker. Langileok (210 zituen guztira Eginek, irratia barne) taldeka banatu gara: batzuk propagandaz arduratzen dira, beste batzuk kamisetak banatzeaz Euskal Herri osoan, beste batzuk irratsaioak ahal den bezala prestatzeaz, beste batzuk Euskadi Información idazteaz...

Langileak nola gelditu zarete?

Hasiera batean langabeziko soldata ukatu egin ziguten, baina ondoren onartu ziguten eskubidea. gertatzen dena zera da, azarora arte ez dugula sosik ikusiko tramiteak direla eta.

Zenbait lankide oso egoera txarrean geratu da. Kontuan izan behar da kazetari asko berrogei urtetik beherakoak direla, hau da kredituetan eta bete-betea sartuta daude. Gainera, bikote dexente dago Egineko langilez osatua. Orokorrean, egoera txarra da guztiontzat, baina bereziki seme-alabak dituztenentzat. Gainera, kolaboratzaile eta korrespontsalek (Bere-ren kasuan esaterako) ez dute subsidioa kobratzeko eskubiderik.

Nola ikusten duzue etorkizuna? Nola doa proiektu berriaren prestaketa?

Etorkizunaz ezer gutxi dakigu oraindik. Proiektu periodistiko berria prestatzen ari direla badakigu, baina hori ez da izango beste Egin bat. Espero dugu egunkari berriaren Eginen aritutako jendea hartzea, baina guztiontzako lekua ez dela izango ere badakigu. Urte bukaera alderako gauzak zehazten joango dira. Garbi dagoena da Eginek utzitako hutsunea bete egingo dela, herria horretarako behar den dirua jartzen ari da eta.

Herriaren elkartasuna paregabea izan da

Nolakoa iruditu zaizu Euskal Herriko gainontzeko komunikabideen eta alderdi politikoen erantzuna?

Gainontzeko komunikabideen erantzuna espero genuena izan da. Kazetarien aldetik elkartasun handia izan dugu, batez ere hedabide euskaldunen aldetik, nahiz eta hutsune nabarmenak ere ez diren falta izan. Zenbait medio, berriz, gehienbat Madrilekoak, poztu egin dira guri emandako kolpearekin. Politikoei dagokien ere,

sorpresa handirik ez da izan: zenbat eta abertzaleagoa izan alderdia, orduan eta gure aldeago jarri dira. Eta zenbait eta antieuskaldunagoak izan orduan eta kontrago.

Zer eragin du Egin ixteak Euskal komunikabideetan?

Egin ixteak ondorio garbia dauka Euskal Herriko komunikazioaren esparruan: prentsa eta irratia espainiara kontsumitzen duen herritarrentzat ez, baina kolonizazio kulturalaren aurka dagoenarentzat galera handia da. Egin eta Euskaldunon Egunkaria kenduta, beste egunkari guztiak oso antzekoak dira mezuari dagokionez. Disimulo gehiagorekin edo gutxiagorekin espainolismoaren tresnak dira, eta Euskal Herriak garatzeko behar dituen bitartekoak hondatzen ikusten badituzte poztu egiten dira.

Nolakoa iruditu zaizu herriaren erantzuna?

Herriaren erantzuna izugarria izaten ari da. Donostian egin zen manifestazioan hotzikara eta guzti sentitu genuen Eginekook milaka eta milaka lagun txaloak entzunda. Eta behar bada, hori baino garrantzitsuagoa oraindik: pertsona asko ari da Euskal Herri osoan, Urretxun eta Zumarragan ere bai, komunikazio proiektu berria aurrera ateratzeko dirua jartzen, edo Hitz Egin plataformetan lanean. Exageraziorik gabe, munduko beste inongo egunkarik ezin du horrekin amets ere egin. Aukera hau aprobetxatzen dut laguntzen ari diren guztiei eskerrak ozen emateko, bereziki bi herriotan Hitz Egin taldea osatu dutenei. Ez diegu kale egingo.

Itxiera ezustekoa izan al da? Ala aurrerantzean estatuak hartu ditzakeen beste erabaki batzuekin batera espero al zenuten?

Estatu espainiarrak aurrerantzean eraso berririk egingo al duen? Ez dakit. Horretarako tresnak eta borondatea ez ditu falta. Baina Euskal Herriak ez dizkio gauzak erraz jarriko. Euskaldun asko gara ideiak oso garbi ditugunak eta atzera egingo ez dugunak, bakoitzak bere tokian.

Valentin Barrena: Lehen taldean arrobiko 11 jokalaria berri sartu dira

Argixaon geroz eta euskara gehiago entzuten dut

Zer moduz hasi duzu Urolako presidente kargu berria?

Zuzendaritzako jende gehiena berria da eta orain momentu larrienean gaude, izan ere fitxen tramitazioa egiten ari gara eta ondorioz, jendeari lagundu beharrean nago. Hasieran errezagoa izango zela uste nuen, baina jendea martxan hasten denean gauzak errezagoak izango dira.

Kirol mailan zein helburu lortu nahi dituzue presidente zauden bitartean?

Guk kirol helburuez ez dugu gehiegi hitz egin, gure asmo nagusia bertako gazteei aukera ematea da eta horretarako beheko taldeekin lana egin behar dugu, preferenteko taldeak lan horren emaitza jaso dezan. Dena den, kirol helburuen barnean, hirugarren mailara igotzeari ez genioke uko egingo.

Taldean horrenbeste gazteri batera aukera ematea, ez al da arrisku handiegia?

Nik uste dut arrisku honi aurre egin beharrean gaudela, Urretxu Zumarraga bezalako herrietako talde batentzat etxeko jokalariekin maila mantentzeko ez genukeela arazorik izan behar. Dena den, beheko taldeetatik hamaika gazte igo dira eta hauei maila berrira egokitzea kostatzen da, baina nik uste apustuak mereziko duela.

Nola bururatu zitzaizun Urolako presidentea izatea?

Aurreko zuzendaritzak utzi egingo



zuela esan eta batzarra egin zuen bertatik, komisioko bat sortu zelarik. Komisioko hiru bazkide, udalordeko jendeak, entrenatzaileak eta abarrek osatu zuten eta beraien eginkizuna zuzendaritza berria bilatzea zen. Baina, hauek jende bila zebiltzala, herriko beste pertsona batzuk beren kontura lanean hasi ziren astero bilerak eginez. Azkenean jende honen egitasmoak aurrera egin zuen eta zuzendaritza berria osatu zenean ni aukeratu ninduten presidente.

Gurasoak bazkide egitearen asmoa nola sortu zitzaizuen?

Beno, oraindik asmo hau ez dugu aurrera eramanean baina 200 gazte mugitzeak diru asko suposatzen du eta horri aurre egiteko modu bat da. Izan ere, gazte bakoitzak 60.000 pezetetako gastua suposatzen du tal-

dearentzako eta guk gurasoei ez diegu diru kopuru hori eskatzen. Guk bazkide egiteko eskatzen diegu bakarrik, modu honetan lagundu egiten ditugularik.

Euskararekiko nolabaiteko neurririk hartzea pentsatu al duzue zuzendaritzan?

Futbol eskolako monitoreek euskaraz egiten diete gazteei komunikatuak, kartelak eta halakoak bi hizkuntzatan egiten ditugu. Esan beharra dago euskara dextente egiten dela Urolan, Zintzo-Mintzok antolatutako Hitzarmenean ere parte hartu genuen, beraz, hainbat ekintza burutu ditugu euskararen presentzia handitzeko asmoz. Dena den, Argixaon geroz eta euskara gehiago entzuten dut, agian ez nahi adina baina lehen baino gehiago bai behintzat.

Juan de Lizarazu erakusketa aretoaren inaugurazioa

Irailak 11an Aldaketa aretoaren hutsunea beteko duen erakustokia inauguratu zen. Juan de Lizarazu izena eman zaio XVI. mendeko margolari, eskultore eta arkitektu urretxuarraren omenez. Artista honen lan nagusia, Tours-eko Martin Deunaren elizako kupula erromatarra



Irailaren 11an inauguratu zen erakustoki berria

izan zen, baina beste hainbat elizetan ere lan egin zuen. Areto berriaren inauguraketan Koruko Aizarna, Kultura diputatua; Pello Gonzalez, Jon Aldama eta San Telmo museoko arduradunak izan ziren. Lokalaren prestaketa Foru Aldundiak ordaindu du oso osorik eta 9 milioi pezeta kosta da. Kanpo aldea apaintzeko Bittor Hernandez urretxuarraren bi eskultura jarri dira hormari itsatsirik. Alkatearen esanetan, areto berria herrian egiten denaren erakustokia izango da. Dena den, lehenengo erakusketa Donostiako San Telmo museoak utzitako 18 margok osatzen dute. Guztiak euskal margolarienak dira, XIX. mende bukaera eta XX. mende haserakoak. Aurelio Arteta, Dario de Regoyos eta Ignacio Zuloagaren lanak dira ikusgai besteak beste. Lehenengo erakusketa hau irailak 27a arte izango da. Aste egunetan 17:30etatik 20:30etara eta jai egunetan 12:00etatik 14:00etara.

Hitz Egin plataformaren aldeko pilota partiduak

Irailaren 11an eta Hitz Egin plataformak antolatutarik, Urretxu eta Zumarragaren arteko pilota norgehiagoka ospatu zen Ederrena frontoian. Lehiaketa ez ofiziala izan arren, harmailetako giroa oso beroa izan zen. Horrelako neurketetan markagailua gutxienez izaten den arren, Zumarragak 2 eta 1 irabazi zuela esan behar da.

Badirudi beraz, Zubimusu enparantzan pankarta jarri zutenek ez dutela pilotaz gehiegi ulertzen.

Herri arteko txapelketa ofizialean Urretxuk mendekua hartzeko aukera izan dezake.

Garrido Goierriko Itzuliaren irabazlea

Aurreko asteburuan ospatu zen Goierriko Itzuliaren XVII. edizioa. Hiru etapen ondoren, Iberdrola taldeko Jose Antonio Garridok irabazi zuen sailkapen nagusia. ACR talde nafarrako Ruben Díaz de Ceriok denbora berean bete zuen lasterketa, baina Garridok sailkapen hobekak lortu zituen hiru egunetan. Bi txirrindulari hauek lehenengo etapen lortu zuten gainontzekoei denbora hartzea. Gorka Gonzalezekin batera heldu ziren Urretxura eta Garrido berak irabazi zuen. Bigarren eta hirugarren etapak Banaka taldeko Josu Sillonizek irabazi zituen.

CHIARA

**Etixerako lentzeria
Oparitarako gaiak**

Labeaga, 33-C behea ☎ 72 51 18
Madaia plazoletan
20700 URRETXU

Z
A
P
A
T
A
K



Otik 40 zenbakiraino

Eliz-kale, 7 ☎ 943 72 54 39 ZUMARRAGA

Montajes e Instalaciones Electricas

HERCE
Electricistas, M. E.

**Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa**

Denda: Ipeñarrieta, 4 ☎ 72 09 50
Tailerra: Mugitegi ☎ 72 42 66
☎ Mugikorra: 919 442 617
20700 URRETXU

foto luz
Argazkilaria

Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga

Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu

Kale nagusia, 5
☎ 73 04 19
Legazpi

* ZURE ESTUDIOA *

URki

**ESKOLARAKO
MATERIAK
BERRIA**

S. Esnaola, 3
☎ 72 42 98
ZUMARRAGA





Ana Mari Balerdi Mairi emakume taldeko kidea, katekista...

- ✓Zer izan nahi zenuen umetan?
Musikaria
- ✓Dutxatzeko ur hotza ala beroa?
Epela.
- ✓Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?
Eskulanak.
- ✓Kolare bat?
Urdina.
- ✓Ze opari hartuko zenuke gustura?
Opari guztiak hartzen dira gustura.
- ✓Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?
Juan Pardo.
- ✓Asteburua deskantsatzeko ala gehiago nekatzeko?
Normalean deskantsatzeko.

- ✓Zure gorputzeko zein atal aldatuko zenuke?
Argalagoa izan nahi nuke.
- ✓Nora begiratzen diozu lehenik mutil bati?
Aurpegira.
- ✓Zer falta zaio Urretxu-Zumarragari?
Zinema.
- ✓Zumarraga-Urretxuko gustuko toki bat?
Pagoeta auzoa.
- ✓Urretxun ezik non biziko zinateke gustura?
Nire jaioterrian: Brinkolan.
- ✓Zein da duzun ohiturarik okerrena?
Erabakiak azkarregi hartzea.
- ✓Bete gabeko amets bat?
Misiolari izatea.
- ✓Musika entzuteko, dantzatzeko, jotzeko ala kantatzeko?
Denetarako.
- ✓Kantu bat.
Habanerak orokorrean.
- ✓Zain egon ala besteak zure zain?
Nahiago dut zain egon.
- ✓Zer da gehien baloratzen duzun gauza?
Leialtasuna.
- ✓Norengatik joango zinateke azken muturre-ra?
Nire familiarengatik.
- ✓Gaua ala eguna?
Eguna.
- ✓Lo egiteko zer?
Ohe on bat eta logurea.
- ✓Gustuko janari bat?
Arraina.
- ✓Ura, ala...
Momentuaren arabera ardo pixka bat ere bai.
- ✓Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun hori?
"Campo de batalla"-n etxe txiki bat.



Graduazioa - Audiometriak - Audifonoen moldaketa - Begiko tentsioaren hartzea

Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 720907 Iparragirre, 1 ☎ eta faxa 943 725968

PUBLIZITATEA

☎ 72 57 75




● Urriaren 2an urtetxo bat beteko duzu gure artean. **Zorionak** Eneko eta Endikaren partetik! **Jokin ondo pasa.**



● **Zorionak Kotsuelo!** Kontsolagarria bazaizu gu ere aurten urtebete zahartu gara.



● Ikastolara itzuli beharra xamurragoa izan dakizula zure urtebetetze ospakizunarekin. **Zorionak Jaione!!**



● Zer moduzko giroa egiten dik hor goian? Hi ere zahartzen ari haiz dagoeneko! baina tira, **Zorionak Josu eta etsusi goian!**



● Emakume egiten ari zara eta dagoeneko hamaika mutil txortuko zenituen, ez baita gutxiagorako! **Zorionak Josune, guapetona!!**



● **Iepa Joxepa!!** Zuri ardo onari bezala urteek mesede egiten dizute. **Zorionak** eta umore on horrekin jarraitu dezazula!



● **Zorionak Lierni,** eta ondo ospa dezazula zure urtebetetze eguna! Oraingoan ere betiko moduan Amaiak tartean ibili behar. **Saltsera!!!**

● **Lander,** Lander neskatan egiten al dugu ezer? Oraingoan ere nora begira zaude? **Zorionak** laguneren partetik



● **Zorionak Lourdes,** zure lagun baten partez. Nor naizen asmatzen baduzu afaltzera gonbidatuko zaitut.



● **Olga, Olga, Olga!!** Garberako dendariok hileko bezero onena zoriondu nahi dugu eta bide batez, eskumi



● **Luisito, Luisito** contigo me quiero casar!! **Zorionak** zure bihotzeko azukre kokoraren partez.



● Orain ere juerga egiteko aitzakia aurkitu duzu, ez zara berehalakotan aldatuko!!! **Zorionak Manolo!!!**



● Urretxuko jaiak gainen ditugu eta beriz ere zapia lepoan duzula ikusi nahi zaitugu! **Zorionak Mikel!!**



● Zutaz oroitu izanak pote batzuk mereziko ditu ezta? Tabernan azalduko gara, eta pajarita berdearengatik ezagutu ahal izango gaituzu. **Zorionak Nerea**, hiru mosketeroen partetik!!

Oraingoan bai!

IRAILA EUSKARAZ DATOR!



ESKAINZA

EUSKALDUNTZE, ALFABETATZE eta EGA maila guztiak.

ERRITMOAK

2, 3 eta 5 ordukoak. Orduategi zabala.

Bekatzeko sistema.

Berri gehiago, Udal Euskaltegian.

BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 09:00-13:00 • Arratsaldez: 15:00-19:00.

MATRIKULATZEKO EPEA

Irailaren 7tik 24ra arte.

16 urtetik gorakoentzat

URRETXU-ZUMARRAGAKO UDAL EUSKALTEGIA

Labeaga, 40 A (Belaustegi plaza berria) • URRETXU • Tel.: 943 72 33 10

URRETXUKO GIROA



URRETXUKO ALDAPA

AVENIDA - BUHAME - EZKURRA - FLORI-
DA GOIKO KALE - LAKET - NAVARRO -